AMUNAGA INDUSTRIALDEA

B1

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia: toponimoa.

2001ean erabaki zan kale-izen barri bat ipintea gaur egun "Amunaga Industrialdea" izena daukan inguruari. "Amona" toponimoa erabili izan da inguru horretan, baina "amuna+aga" toponimo normalizatuaren deformazioa da (Eusko Jaurlaritzaren Autonomiadun Elkarteko Toponimiaren datu-basea) eta han egoan Amunaga baserritik eta bere lurrei emoten izan jaken izenetik dator.

Esangura aldetik erreferente desberdinak daukaguz ahozko berbetean: "amuna/amona", amona mantagorri, mari gona-gorri, marigorringo –mariquita, gusano de San Anton, cochinilla; "aga" atzizkia, lekutasuna eta multzoa adierazoten dauana.

Muga geografikoak

Amunaga Industrialdea Gernika-Lumotik Muxikara doan errepideak mugatzen dau ekialdetik eta Arana auzoak inguratzen dau oso-osorik.

Ezaugarri historikoak

Aitatzekoa da historian zehar "Amunaga" baserriaren erreferentziak non agertzen diran:

Bizkaiko Lurraldeko Baserri-zerrenda (urtea: 1796; 487 or.).

Bizkaiko Lurraldeko Baserri-zerrenda (urtea: 1798; 379 or).

B4

ANDRA MARIA KALEA

Izenaren jatorria

Etimologia (patronimikoa):

Ama Birjinearen izena. Kristinauen jainkoa dan Nazaretheko Jesusen ama.

Muga geografikoak

Mendebaldetik Allendesalazar kalean amaitzen da eta ekialdetik "8 de Enero" kaleak mugatzen dau. Erdi Aroko uribilduan zehar doa goitik behera, Andra Mari eleizearen harmailetatik "8 de Enero de 1882"raino, udaletxe aurreko Foru plazatik igarota.

Ezaugarri historikoak

Kale honek sorrera bikotxa daukala esan leiteke: alde batetik, Zearretatik etorren antxinako errekasto baten ibilgua (uriolak eta zaparrada handiak diran bakotxean urak bere bidea egiten dau bertatik oraindino); bestetik, Lumoko portua zan Gernika auzoa, Gernikazarragaz, San Pedro burugaz eta Zearretagaz lotzeko egoan bidetxu bat.

Kale honek uriguneko beste kale guztiak kurutzatzen ditu. Horregaitik deitu jakon Erdi Aroan "Travesera".

Edifizio aitagarriak

Andra Mariaren eleizea: 1418an hasi ziran eregintza beharrak. 1471n Salinas kondearen armadak erasota triskantza handia jasan eban eta horren ondorioz luzaroan geldi egon ziran beharrak. 1515ean, eta euskal gotiko estiloa jarraituz, birkonpondu egin zan eta 1715ean amaitu. Lumoko eleizateak eregintzarako beharrezkoa zan baimena emon ez ebanez, ez dauka torrerik. Izan be, bere udalerriko lurretan sartzen zan gainean torre hori hartuko eban mendebaldeko atea. Torre haren ordez kanpai-hormea egin jakon 1776an ate nagusiaren goiko aldean. Sasoi haretan eleizeak aterpea be galdu egin eban. Aurrealdean plaza zabal bat dauka Busturialdeko merindadeko eleizek eukien "fuero de la anteiglesia"k arautzen ebanez. Plazea izateko eskubide horri esker, eleizearen itxura ederra estalduko leuken edozelako etxerik ez da altzau inguruan.

ARANA AUZOA

A1

Izenaren jatorria

Kasu honetan be, auzoak dauen izena bertako baserri batetik jatorko. Badira inguruan "Arana" izena daukien baserri batzuk: Arana, Arangoitia eta Aranbarrena.

Muga geografikoak

Auzo hau Amorebieta-Etxanorako bidearen ondoan dago.

B4

ARTEKALEA

Izenaren jatorria

Etimologia (toponimoa): Beste kale artean dagoana.

Muga geografikoak

Artekaleari, beragazko paraleloak diran kaleen antzean, San Juan kaleak egiten deutso mugea iparraldetik eta Adolfo Uriostek hegoaldetik.

Ezaugarri historikoak

Bere izenak adierazoten dauen moduan, kale honek inguruko topografiak marketan deutsan esparrua hartzen dau, uriaren maldan. Halanda guztiz be, kale hau, Barrenkalea lez, beragazko paraleloak diran beste kaleak baino beranduago sortu zala uste dogu. Antxina, kale hau dagoan eremua ibar eta zingira-lurra zan. Uria sortu zan sasoian, 1366an, urpean ziran inguruok.

Mendebaldean, gaur egun Foru plaza, Gernika deitzen zan Lumoko itsasportua egoan. Horren lekuko dira kale honetan alde bateko etxe batzuetan aurkitu ziran gabarrak eta horreek lotzeko txingetak.

Artekaleren bilakaera uriko beste kaleen parekoa izan da. 1514an ziurtatu daiteke Yausaondoko errebalak kale honetako eta Barrenkaleko etxebizitzak hartzen ebazala. Kale moduan ez da aitatzen 1745eko fogerazinora arte, eta gainera "En medio" kalea lez agiri da. Aurreko fogerazinoan, 1704koan, Azokakalekoak eta Artekalekoak "Calle Segunda"ren barruan sartzen ziran. Kale honek ez dau izan inoiz, orain daukan moduan, sarrera zuzenik udaletxeko plazara. Hara heltzeko auzokideek Andra Maria kaletik joan behar izaten eben. Bermeorako kaminoa zabaldu zanetik kale hau herriaren ardatz bihurtu da.

Historian zehar kale honek izen ezbardinak izan dauz: "En medio", Artekalea, edo herrikoiagoak izan diran "Mediacalle" edo Erdikokale. XX. mendearen hasieran Juan Tomas Gandarias izena emon eutsien, enpresari eta politiko hau Gernika-Lumoko seme kuttun izendatu ebenean.

Kale hau betirik izan da gernikar merkatari eta dendari gunea. Berton hartu eben leku (eta oraindino bertan jarraitzen dabe euretariko askok) besteak beste: Boyra farmaziak, Pio estankoak, Juanita Mugartegi mertzeriak, Seijo dendak, La Elorrianak, Ojangurenek, Erretxin okindegiak, Adela Garteizek, "Coloniales Arana"k, "La Cooperativa Guerniquesa"k, Ilarramendik, "El Surtidor Bilbaino"k, "Las Tabernas de Marcuerquiaga"k ("Izquierda Republicana" alderdi politikoaren egoitza), Kattalinek, eta abar.

Gerrea eta gero, Artekalea guztiz barriztu zan "Regiones Devastadas" erakundearen proiektuak burutu ziranean. Lan honeetarako, bertan hamaikatxu preso politiko ibili ziran urteetan beharrean. Arkupe ederrak egin jakozan kaleari eta erdialdean eskola bat eregi zan, "Corazonistas"en esku itxi zana 1962ra arte. Eskola berean izan eben euren egoitza "Hogar Juvenil de la Organización Juvenil Española (OJE)", "Juventudes de Falange Española Tradicionalista" eta "Juntas Ofensivas Nacional Sindicalistas" erakundeek.

Edifizio aitagarriak

Errotea: uribilduaren sorrera datatik 40 egunera idatzirik dagoan agiri baten agertzen danez, kalearen ekialdean baegoan "gurpil" bat, mareetako errota bat seguruenik. Juan Sánchez Mezeta-rena zan eta errekako ura aprobetxetan eban martxan ipinteko.

Mezeta-Allendesalazar torretxea: "Casa de las Pinturas" izen herrikoia eukan. 1494an eregi zan uriaren harresiari dautsala. Berbizkunde sasoian barriztu ebenean, margolanak ipini eutsiezan. 1898an bota egin eben.

Albiz etxea: kalearen mendebaldean egoan, erdialde inguruan, eta Andra Maria kaleagaz bat eginda (gaur egun bertan da Foru plaza). Bere balio historikoa 1937ra arte gabarrak lotzeko erabilten ziran txingetetan datza gehienbat. Edifizio hau Errenta Etxea izan zan Erdi Aroan, eta bertan egiten ziran burdina eta beragaz zerikusiria eukan merkataritzari ezarritako zergen ordainketak. Etxe honetan bizi izan zan Lucas Altube y Albiz historialaria.

Atxirika etxea: bonbardaketaren aurretik etxe honetan horma-konka bat egoan Santa Barbararen irudiagaz (armagileen zaindaria) eta done horren egunean, abenduaren 4an, beti egiten zan jai bat kale honetako iparraldean. Gerra ostean, irudi hori oroitzeko, bertan egin zan etxe barrian, antzerako beste Santa Barbara bat ipini eben, baina orain dala urte batzuk etxearen aurreko aldean barrikuntzak egikeran, kendu egin eben.

B3

ASKATASUNA KALEA

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia: Oraintsuko kalea da eta izen hori udalaren erabakiz jarri jakon.

Muga geografikoak

Mendebaldetik Juan Calzada kalea eta ekialdetik Iparragirre kalea.